

ZOZKETAREN OINARRIAK

1.- Erakunde antolatzailea, zozketaren eremua eta saria

Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito entitateak, aurrerantzean LABORAL Kutxak, helbide soziala Arrasateko (20500 - Gipuzkoa) Jose Maria Arizmendiarieta Pasealekuan z/g duela, promozio bat egingo du eta guztira 500€ko 5 sari zozketatuko ditu 2015eko urtarrilaren 8tik martxoaren 31ra bitarteko epean AURREZKLIK & ... izeneko kontu berria irekitzen dutenen artean.

2.- Zozketaren eremua eta doakotasuna

Euskadiko Autonomia Erkidegoan joko arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legean aurreikusitakoaren babesean antolatu da zozketa hau eta doako izaera izango du, eta beraz, sari hori irabazi ahal izateko ez da beharrezkoa izango inolako kuotarik edo zenbateko gehigarririk ordaintzea.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

LABORAL Kutxan 2015eko urtarrilaren 8tik martxoaren 31ra bitartean AURREZKLIK & ... izeneko kontua irekitzen duten eta 18 urtetik gora dituzten pertsona fisiko bezero guztiek parte hartu ahal izango dute zozketan. Aipatutako kontu hori irekitzen den egunean egiaztatu beharko da eskatutako gutxieneko adin hori.

Zozketa honetatik kanpo geldituko dira LABORAL Kutxako langile guztiak eta zozketa honekin zuzeneko harremana duten pertsona guztiak.

4.- Zozketaren datak

500€ko 5 sariren zozketa ausazko informatika-sistema bitartez egingo da, adierazitako epealdi horren barruan zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien artean:

- AURREZKLIK & ... izeneko kontua 2015eko urtarrilaren 8tik 2015eko martxoaren 31ra, biak barne, irekitzen duten guztiek 2015eko apirilaren 10ean egingo den 500 €ko 5 sariren zozketan parte hartuko dute.

5.- Irabazleak

NAN bakoitzeko sari bakarra emango da eta irabazleek eguneratuta eta positiboan eduki beharko dute beren harreman ekonomikoa, baita entitatearekin kontratatuta dauzkaten produktu eta zerbitzuak ere. Horrela ez bada, entitateak saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du.

Zozketa honetan, gainera, 5 ordezeko aukeratuko dira, irabazleetako norbaitek baldintzak beteko ez balitu.

Zozketa egiten den egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epearen barruan sarituetako batekin harremanetan jartzea ezinezko balitz entitatearen datu-basean bezero horri buruz dauden datuak erabiliz, saria ordezkoei esleituko zaie zozketan atera izan diren hurrenkerari jarraiki.

LABORAL Kutxak egokien irizten dion moduan eta tokian banatuko dira sariak.

6.- Sariaren zergak

Sariak indarreko PFEZaren araudia bete eta dagozkion zergak ordaindu behar ditu. Zerga-egozpen hori AURREZKLIK & ... kontuaren titular guztien artean zati berdinetan banatuko da. LABORAL Kutxak ez du bere gain hartzen sariaren zerga-ondoriorik, irabazlearen kontura izango baitira.



7.- Eskubideak eta irudia lagatzea

Zozketa honetan irabazle denak, bere saria jasotzeko eskubidea izateko, baimena emango dio LABORAL Kutxari bere izen-abizenak saritu gisa argitaratu ahal izan ditzan, entitateak zozketa hau ezagutzera emateko egoki ikusten dituen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Sarituak ez badu onespenerik ematen bere izen-abizenak argitaratzeko, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea eta ordezkioak jasoko du zozketan erabakitako hurrenkerari jarraiki.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak beretzat gordetzen du zozketa honetatik sor daitekeen edozein eztabaida edo gai egokien iruditzen zaion moduan erabakitzeko eskubidea, hori geroratzea, aldatzea edo baliogabetzea ere barne. Zozketan parte hartze hutsak oinarri hauek guztiak onartzen direla esan nahi du, eta hain zuzen ere, www.laboralkutxa.com helbidean kontsultatu ahal izango dira.

